

PRENTSA-OHARRA

Genero-ikuspegia duen zientziaren komunikazioak 200 pertsona baino gehiago bildu ditu Bilbon

Aurten, adimen artifizialaren algoritmoetan dauden genero-alborapenak jarri du arreta ekimenak, eta zientziaren komunikazioan genero-ikuspegia txertatzeko eta hobetzeko gogoetarako gune bihurtu da

Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatzen du jardunaldia, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren, Iberdrola eta EITBren babeseta laguntzarekin

Bilbon, 2025eko maiatzaren 16an. Generoa eta zientziaren komunikazioa 2025 jardunaldiak 1 650 pertsona baino gehiago bildu ditu aurten, aurrez aurre zein modu birtualean, genero-ikuspegia duen zientziaren komunikazioan interesa dutenak. Zehazki, 209 pertsona bertaratu dira aurrez aurre, eta 1 450 lagunek baino gehiago streaming bidez jarraitu dituzte hitzaldiak.

Bilboko Iberdrola Dorretxean egin zen jardunaldian genero-alborapen eta adimen artifizialaren arteko harremana aztertu zen, genero-inklusioa zientziaren komunikazioan duen garrantziaz hausnartu zen, eta publikoak zabaltzeko eta komunikazio anitzagoa eta irekiagoa bat gautzateko estrategia berriak proposatu ditu, besteak beste.

Bertan parte hartu dute, esaterako, **Esther Paniagua** kazetariak (Juan Carlos Erregea Unibertsitatea), zientzian, teknologian eta zibersegurtasunean espezializatua; **Clare Wilkinson** (UWE Bristol), zientzia-komunikazioko eta parte-hartze publiko arloko ikertzaileak; **María Pilar Rodríguez** komunikazio esparruko irakasle eta ikertzaileak (Deustuko Unibertsitatea) eta **Marta Macho** matematikari eta *Mujeres con Ciencia* blogaren editoreak (UPV/EHU).

Zientzia komunikatzea, gizartearekiko konpromisoa

Rafael Orbegozok, Iberdrolako Presidentetzako aholkulariak, ongietorria egin zien jardunaldiaren hirugarren edizio honetan parte hartu zutenei, eta aukera-berdintasunarekin kopainiak duen konpromisoa nabarmendu zuen. "Gaur egun, emakumeak konpainiako erantzukizun-postuen % 34,5era iristen dira, eta ehuneko horrek goruntz egingo du etorkizun hurbilean. Izan ere, funtsezkoa da talenturik onena aprobetxatzea enpresa eta gizarte gisa hazten jarraitu nahi badugu", adierazi zuen.

Bestalde, **Gotzone Barandikak**, UPV/EHUko Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak, jardunaldiaren garrantzia nabarmendu zuen, "gure ohiko praktikak aztertzeko, zalantzan jartzeko eta horien inguruan hausnartzeko espazio bat eskaintzen baitigute". Era berean, azpimarratu zuen "ezagutza gizartean zabaltzeko egiten dugun lan publikorako tresnak eskuratzeko aukera ematen digu, zientzia-komunikazio inklusiboago, justuago eta konprometituagoa egiteko".

Amaitzeko, **Iker Badiolak**, UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren zuzendariak, nabarmendu zuen: "zientzia kontatzeko modua hobetzeko, eta gure ingurunearen ongizateari eta kalitate demokratikoari modu positiboan laguntzeko, esaten dugunaren inguruko gogoeta egin behar dugu; aztertu nondik esaten dugun, zer esaten dugun eta zer isiltzen dugun, gure narratibak eratzen dituzten mekanismo sotiletan pentsatuz".

Generoa eta zientziaren komunikazioa jardunaldia [Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) antolatutzen duen zientzia-dibulgazioko jarduera bat da eta [Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren](#), [Iberdrolaren](#) eta [EITBren](#) laguntza du. Hurrengo egunetan, hitzaldi nagusien, mahai-inguruen eta proiektu-aurkezpenen edukiak eskuragarri izango dira EITBko [Nahieran](#).

NOTA DE PRENSA

La comunicación de la ciencia con perspectiva de género congrega en Bilbao a más de 200 personas

La iniciativa, que este año ha puesto el foco en los sesgos de género presentes en los algoritmos de inteligencia artificial, se ha convertido en un espacio de reflexión en torno a cómo incorporar y mejorar la perspectiva de género en la comunicación científica

Esta jornada divulgativa está organizada por la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco con el apoyo del Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación del Gobierno Vasco, Iberdrola y EITB

Bilbao, 16 de mayo de 2025. La jornada *Género y comunicación de la ciencia 2025* ha reunido este año a más de 1 650 personas, tanto en formato presencial como en virtual, interesadas en la comunicación científica con perspectiva de género. En concreto, 209 personas han seguido de manera presencial a estas charlas, mientras que alrededor de 1 450 las han visto en directo vía *streaming*.

El evento, celebrado a lo largo del día y la tarde de ayer en la Torre Iberdrola de Bilbao, puso el foco en su tercera edición en cuestiones tales como la relación entre la inteligencia artificial y los sesgos de género, la importancia de la inclusión de género en la comunicación científica, así como en la propuesta de nuevas estrategias para ampliar públicos y construir una comunicación más diversa y abierta, que trascienda los círculos habituales, entre otras cuestiones.

En la jornada participaron, entre otras, la periodista **Esther Paniagua** (Universidad Rey Juan Carlos), especializada en ciencia, tecnología y ciberseguridad; **Clare Wilkinson** (UWE Bristol), investigadora en comunicación científica y participación pública; la profesora e investigadora en comunicación **María Pilar Rodríguez** (Universidad de Deusto) o **Marta Macho** (UPV/EHU), matemática y editora del blog *Mujeres con ciencia*.

Comunicar ciencia, un compromiso con la sociedad

El asesor de Presidencia de Iberdrola, **Rafael Orbegozo**, dio la bienvenida a quienes asistieron a esta tercera edición de la jornada, destacando el compromiso de la compañía con la igualdad de oportunidades. "En la actualidad, las mujeres ya alcanzan un 34,5% de puestos de responsabilidad en la compañía y este porcentaje subirá en el futuro inmediato. Aprovechar el mejor talento es clave si queremos seguir creciendo como empresa y como sociedad", señaló.

Por su parte, la vicerrectora de Transferencia e Internacionalización de la UPV/EHU, **Gotzone Barandika**, puso de manifiesto la importancia de estas jornadas que "nos ofrecen un espacio para analizar, cuestionar y reflexionar sobre nuestras prácticas habituales", y recalcó que "brindan una oportunidad de adquirir herramientas para construir una comunicación científica más inclusiva, más justa y más comprometida con nuestra labor pública de difusión social del conocimiento".

Para concluir, **Iker Badiola**, director de la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU, incidió en que "para mejorar la forma en la que contamos la ciencia, y contribuir de manera positiva al bienestar y a la calidad democrática de nuestro entorno necesitamos reflexionar sobre cómo lo hacemos y desde dónde, lo que decimos y lo que callamos, parándonos a pensar en los mecanismos sutiles que configuran nuestras narrativas".

La jornada *Género y comunicación de la ciencia* es una actividad de divulgación científica organizada por la [Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) con el apoyo del [Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación del Gobierno Vasco](#), [Iberdrola](#) y [EITB](#). En los próximos días se podrá acceder al contenido de las ponencias magistrales, mesas redondas y presentaciones de proyectos a través del canal [Nahieran](#) de EITB.